




LITERATURA. Juan Ramon Madariaga, Donostia. JON URBE / FOKU

Bufaloak nola, bizitzak hala

- Juan Ramon Madariagak 'Bufalo guztiak' plazaratu du, Erein argitaletxearen eskutik.
- XV. Blas de Otero - Angela Figuera nazioarteko poesia lehiaketan irabazle ateratako poemak batu ditu liburuan.

Garbine Ubeda

DONOSTIA— Mina, ahanztura, memoria, heriotza, harremanak, mundu honen aurrean gizakiek duten jarrera, ziurgabetasuna, zalantzak eta, finean, bizitza bera bilakatu ditu hausnarketarako ardatz Juan Ramon Madariaga (Bilbo, 1962) idazleak, *Bufalo guztiak* (Erein) poema liburuan.

Alabaina, gaien ugaritasunaz harago, poema lerro gogoangarriak aurkitu dituela nabarmendu du Erein argitaletxeko editore Uxue Razkinek, eta hainbat adibide aurreratu dizkio irakurleari. Esate baterako, «denboraren neurria absentzia borobiletan neurtzen dut», edota «oroimena baldin badago, modu batean edo bestean zerbait edo norbait joan delako da». Baita beste bat ere: «Zauririk larrienek ez dute haragia zabaltzen».

Liburuan batu duen poema sorta irabazle suertatu zen XV. Blas de Otero-Angela Figuera nazioarteko poesia lehiaketan. Alta, *Beste piztia batzuk* izenburupean aurkeztu zuen. Gerora «piztia ho-

riek sailkatzeko edo zehazteko premia» sortu zitzaion Madariagari, poema liburua amaituta ere hausnarrean jarraitu duelako.

Madariagaren poema liburuetan ohikoa denez, barruan aipatzen den hitz edo lerro batek eman dio, azkenean, liburua izenburua: «Bufaloa Afrikako animaliarik arriskugarriena da ia, hipopotamoaren atzetik, noski. Gainera, lerroburu bezala, desberdina iruditu zitzaidan, eta esanguratsua».

Bufaloak direla eta, konparazio bat darabil Madariagak. Poemetan aipatzen diren gaiak, hala nola mina, ahanztura, gabezia eta gainerakoak, «sakondu ezinik eta katramila moduan» barneratzen direla dio, «bizitzak hartu egiten gaituelako eta aurrera eramaten gaituelako», pentsatzeko astirik eman gabe. Batzuetan, gainera, zapaldu egiten duela nabarmendu du, «zertan ari garen edo nora goazen konturatzerako». Bizitza, horrenbestez, bufalo aldra batekin alderatu liteke, «parean egokituz gero, azpian hartuko gaituelako eta ez dugulako auke-

rarik izango beste norabide bat hartzeko».

Bestalde, bufalo aldra horren barruko espezimen bakoitza norbera ere badela iruditzen zaio: «Taldearen barruan ezinbestean sartu eta bufalo bilakatzeko gara, mimetizatu egiten gara, eta, korronteari jarraituz, parean egokituko den guztia akabatzen dugu». Egileak, tarte batean bederen, gisa horretan sentitu izan du bere burua.

Dena da behin-behinekoa

Hausnarrean eta zalantzan ibiltzearen ondorioz, «dena behin-behinekoa» izatearen sentipena du Madariagak. Halaxe azpimarratu du liburua kontrazalean ere: «Beharbada dena da erreskate bat osatzeko estrategia. Duintasunez onartu behar dira marjinazioa eta periferia».



«Taldean bufalo bilakatzeko gara, eta, korronteari jarraituz, parean egokituko den guztia akabatzen dugu»

JUAN RAMON MADARIAGA
Poeta

Behin-behinekotasuna ezinegona pizten duen elementua da Madariagaren poesian. Era berean, kezkatuta dabilenean, poesia idaztea «bizitza zati horri edo espazio horri iraupena» ematea da. Hain zuzen horregatik, «benetan itzela da poetaren lana», haren ustez.

Nolanahi dela ere, poetak badu egia garbirik, liburu barruan ageri denez: «Bi gauza ikasi ditut: antsietate masa garena eta maitatuak izan behar dugula». Lehenaren baieztapenaz jabetzeko, «telebista jarri besterik ez dago», haren aburuz. Bigarren baieztapena dela eta, «maitasuna perturbazio horretatik aske eta lasai sentitzeko ihesbide bakarra» izan liteke. Baina batzuetan ez dago halakorik, eta «prekaritate horretatik sortzen diren poemak lehergarri dira».

Poeta definitzailea dela esaten diote Madariagari, «dena zehaztu» nahi izaten duelako, haren hitzetan. Hori dela eta, egoerak «ahalik eta modu ezberdinetan» definitzen ditu, «kolore eta intentsitate guztiak kontuan hartuz, finean gauza bera esateko».

Poema liburu hau etapa baten amaiera izatea nahiko lukeela aitortu du, eta, ildo horretan, liburua amaiera aldera poema narratiboagoak egiten ari da. Horietan ez du «definizio muturrekorik» bilatu, eta lexikoa ere «bestelakoa» da. ●

HITZ GUTXITAN

Galtzagorrik 48. 'Behinola' plazaratu du

LITERATURA— Haur eta gazte literaturari buruzko aldizkariak euskaraz diharduten sortzaileen lan baldintzei heldu die, *Langelata bat norberarena* izenburupean. Sormen lanaren atala Asun Agirianok idatzi du, eta denbora-pasa, berriz, Mariñe Arbeok.

Arkitektura eta arte garaikidea elkarrekin

ARTEA— Gasteizko Artium museoak arte garaikidea, arkitektura eta espazioa batzen dituen ikastaro bat egingo du, urtarrilaren 16tik martxoaren 19ra. Ula Iruretagoiena arkitektoak eta Miren Vadillo Artearen Historian doktoreak zuzenduko dute.

Donostia Musikak Bach zikloa eskainiko du

MUSIKA— Ziklo nagusian sei kontzertu izango dira, Viktoria Eugenia antzokian. Conductus Ensemblek eskainiko du lehena, urtarrilaren 24an. Bachen musika ulertzen laguntzeko liburua ere argitaratuko dute.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus



Erakusketa
Hemen dragoiak daude
Mikel Otxoteko

STM
San Telmo Museoa